

3. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

ERAKUSLEIHOAK ERE KALEAK BIZIBERRITZEKO TRESNA

Tolosa Gune Biziak egitasmoaren barruan, itxita dauden lokaletako erakusleihoak egokitu ahal izango dituzte merkatariek, beren produktuak erakutsi eta kaleak biziberritzeko. Kataluniako Olot heritik jaso du ideia Tolosako Udalak, eta duela bi urte inguru abian jarri zuen *Tolosa Merkat* programaren emaitza onek **17** dute orain Udala proiektu berri honetan sartzera, gune batzuetako negozioak eta kale-bizitza berreskuratzeko helburuz.

Eguneroko kale-bizitza galdu duten guneak **18** zituzten *Tolosa Merkat* programarekin, eta hutsik dauden lokaletara begira jarri dira egitasmo berriarekin. Hutsik dauden lokalen erakusleihoak erabiltzeko **19** izango dute herriko merkatariek beren produktuak erakusleio horietan ere erakusteko. Herri guztiari begirako proiektua den arren, hasiera batean bakarrik Alde Zaharrean izango da. Hasteko, Errementari kaleko goiko partean **20** da Udala. Argi dago kale horrek erabat galdu duela jarduera komertziala eta herrikoak ez direla gaur egun bertatik pasatzen, baina biziberrituko balitz, jendea **21** igaroko litzateke kale horretatik.

Lokal hutsen jabeekin **22** bat egin ondoren, bertaratuek oso begi onez jaso zuten proiektuaren berri. Horrela, Udala merkatarien eta jabeen arteko **23** izango da, eta merkatoriari, hartu duen erakusleio hori behar bezala egokitu eta ondu dezan, seiehun euroko **24** eskainiko dio. Lokalen jabeek, bestalde, ehuneko berrogeita hamarreko deskontua izango dute Ondasun Higiezinaren Gaineko **25**. Gainera, lokala bera ere erakargarriagoa izango da, etorkizunean norbaitek erosi nahi badu. **26**,

jabeontzat ere oso onuragarria da. Gauzak horrela, *Tolosa Gune Biziak* egitasmoak bi onuradun izango ditu. Merkatarien onurarako eta lokalen jabeen onurarako izango da eta, **27**, herri osoarentzat.

Tolosako Udalak hamabi mila euroko **28** du proiektua garatzeko, eta diru hori amaitu arte zabalik izango da izen-ematea. Tolosako Udaleko garapen ekonomikoaren sailean egin beharko dira **29**, bertaratuta, telefonora deituta edo enplegua@tolosa.eus helbide elektronikora mezu bat idatzita. **30**, egunotan herrian zehar proiektuaren nondik norakoak biltzen dituen esku-orria ere banatzen ari dira.

Oraingoz Alde Zaharreko erakusleihoak biziberritzeari eman nahi dio **31** Udalak, baina horrek ez die herriko beste lekuetako merkatariei proiektu berrian parte hartzeko aukerarik kenduko. Areago, beste merkatariek beren produktuak Alde Zaharreko erakusleioetan jartzea ere Udalaren ideietako bat da eta, **32**, Alde Zaharrekoek besteen erakusleihoak erabiltzea.

Tolosako **33** komertzialak berreskuratzeko bidean, azkenik, aipatzekoa da proiektuan parte hartuko duten erakusleio guztiek estetika bateratua zainduko dutela, binilo batzuen bitartez, eta horrela jabeek lokal horiek negozioak martxan jartzeko **34** daudela jakinaraziko dute.

<Ataria.info>, 2015eko martxoa. Egokitua.

3. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

- 17.a) bultzatu
b) bildu
c) atzeratu
d) gomendatu

- 18.a) identifikatuta
b) nahasita
c) zabalduta
d) ekoitzita

- 19.a) premia
b) gabezia
c) aukera
d) ohitura

- 20.a) saiatuko
b) bilduko
c) ohartuko
d) aurkeztuko

- 21.a) urduriago
b) goizago
c) sarriago
d) indartsuago

- 22.a) lehiaketa
b) bilera
c) mintegi
d) sailkapen

- 23.a) ibiltaria
b) salataria
c) ikuskaria
d) bitartekaria

- 24.a) diru-laguntza
b) interesa
c) bermea
d) aldea

- 25.a) Jardueran
b) Zergan
c) Baimenean
d) Eskabidean

- 26.a) Bestela
b) Berriz
c) Hala ere
d) Beraz

- 27.a) behintzat
b) adibidez
c) badaezpada
d) azken finean

- 28.a) isuna
b) salmenta
c) aurrekontua
d) ordaina

- 29.a) arauak
b) tramiteak
c) iruzkinak
d) biderketak

- 30.a) Batez beste
b) Esan bezala
c) Horrekin batera
d) Horren ondorioz

- 31.a) fidagarritasuna
b) larritasuna
c) xehetasuna
d) lehentasuna

- 32.a) berez
b) alderantziz
c) horretarako
d) batetik

- 33.a) harreman
b) ikur
c) sarrera
d) eremu

- 34.a) erabakigarri
b) eskuragarri
c) aldagarri
d) onuragarri